Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

2/2023 EBAZPENA, maiatzaren 23koa.

RESOLUCIÓN 2/2023, de 23 de mayo

PRESIDENTEA: María Barrena Ezcurra.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

MAHAIKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren inguruko Erreklamazio Batzordeak, lehen aipatutako kideek osatuak, EBAZPEN hau eman du ANDREAK jendaurreko informazio-eskaerari ez erantzutearen ondorioz aurkeztutako erreklamazioa dela-eta. Iñigo Alvear Lekue andrea aritu da txostengile, eta batzordearen iritzia azaldu du:

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada por DOÑA , como consecuencia de la falta de respuesta a la solicitud de información pública en su momento planteada. Actúa como ponente Don Iñigo Alvear Lekue, quien expresa el parecer de la comisión:

## EGITATEZKO AURREKARIAK

## ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENA. 2023ko martxoaren 8an, andreak (aurrerantzean, « andrea» edo «erreklamatzailea», bata zein bestea) erreklamazioa aurkeztu zuen Gardentasunaren inguruko Erreklamazio Batzordean (aurrerantzean, «batzordea»), Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro elektronikoan.

PRIMERO. Con fecha 8 de marzo de 2023, DOÑA (en lo sucesivo, e indistintamente, *"la Sra. o "la reclamante"*) presentó, en el registro electrónico de la Diputación Foral de Bizkaia, reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia (en adelante, *"la comisión"*).

Hona erreklamazioaren edukia, hitzez hitz:

El tenor literal de la reclamación fue el siguiente:

*Erreklamazio hau jarri dut otsailaren 2an egin nuen informazio-eskaera dela eta; izan ere, martxoaren 8an ez dut oraindik erantzunik jaso administrazioaren aldetik. Espedientea berrikus dadila eskatzen dut, eta eskatutako informazioa eman dakidala; izan ere, ez dut inolako ez-betetzerik egin datu pertsonalen arloan.*

*"Pongo esta reclamación la solicitud de información que realicé el día 2 de febrero, ya que a fecha 8 de marzo no he recibido respuesta por parte de la administración. Solicito sea revisado el expediente, y que se me aporte la información solicitada ya que no incumplo con ningún dato personal"*.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 90IS-FZWR-WOOJ-SUVB
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**BIGARRENA**. Hain zuzen, elektronikoki 2023ko otsailaren 2an erregistratutako idazkiaren bidez, erreklamatzaileak informazio hau eskatu zuen:

- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea indarrean jarri zenetik mendekotasuna ebaluatzeko jasotako eskaeren kopurua, urteka banatuta.

- Lege hori indarrean jarri zenetik mendekotasuna ebaluatzeko onartutako eta ebatzitako eskaeren kopurua, kasu honetan ere, urteka banatuta.

- Ebaluazio horien emaitzak, data horretatik aurrera eta, horiek ere, urteka banatuta.

**HIRUGARRENA**. Eskaera Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari zuzendu zitzaion arren, kontuan hartu behar da haren xedea Gizarte Ekintza Sailaren eskumenekoa dela, zehazki sail horretako Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiarena.

**LAUGARRENA**. Erreklamazioa jaso ondoren, hura sartu zen egun berean, andreak bere erreklamazioan planteatutako gaiei buruzko informazioa emateko eskatu zitzaion zuzendaritza horri, eta hamar egun baliodunеko epea eman zitzaion horretarako.

Erantzunik jaso ez zenez, berriro egin zitzaion eskaera 2023ko apirilaren 11n.

**BOSGARRENA**. 2023ko apirilaren 14ko eta maiatzaren 8ko mezu elektronikoetan, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi zuen erreklamatzaileari bidali zitzaiola eskatutako informazioa, 2023ko martxoaren 29ko jakinarazpenaren bidez.

**SEGUNDO**. En efecto, mediante escrito con fecha de registro electrónico de 2 de febrero de 2023, la reclamante había solicitado la siguiente información:

- Número de solicitudes de valoraciones de dependencia recibidas desde la entrada en vigor de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, desglosada por años.

- Número de solicitudes de valoraciones de dependencia atendidas y resueltas desde la entrada en vigor de la misma ley, también desglosadas por años.

- Resultados de dichas valoraciones, desde la misma fecha y también desglosadas por años.

**TERCERO**. Si bien la solicitud se dirigía al Instituto Foral de Asistencia Social, debe tenerse en cuenta que el objeto al que se refería es competencia del Departamento de Acción Social, concretamente de la Dirección General para la Promoción de la Autonomía Personal de dicho departamento.

**CUARTO**. Una vez recibida la reclamación, y en el mismo día en que ésta tuvo entrada, se solicitó a dicha dirección que informase respecto de las cuestiones planteadas por la Sra. en su reclamación, otorgando un plazo de diez días hábiles al efecto.

Dada la falta de respuesta, se reiteró la petición con fecha 11 de abril de 2023.

**QUINTO**. En correos electrónicos de 14 de abril y 8 de mayo de 2023, la Dirección General para la Promoción de la Autonomía Personal informa de la remisión a la reclamante de la información solicitada, mediante notificación de 29 de marzo de 2023.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 90IS-FZWR-WOOJ-SUVB
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**LEHENA**. Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen.

Foru-arau horren 29.1.1 artikuluan foru-arau beraren 2. artikuluarekin lotuta ezartzen denez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomoen, foru-erakunde publiko enpresarialen, merkataritzako foru-sozietateen, foru-fundazioen eta foru partzuergoen eta aurrekoen artean aipatu ez diren zuzenbide publikoko beste foru-erakundeen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea espresuki edo presuntzioz ukatzeagatik aurkeztutako erreklamazioak ebazteko eskumena Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari dagokio.

Bestalde, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak («*128/2016 Foru Dekretua*»), 18. artikuluan ezartzen duenaren arabera, batzordeko osoko bilkuraren eskumena da, besteak beste: *a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*

**BIGARRENA**. Jaso ditugun aurrekarien arabera, andreak erreklamazioa jarri zuen batzorde honen aurrean, ez zitzaiolako eskatutako informazioa eman horretarako arauz aurreikusitako epean.

**HIRUGARRENA**. Aurrekoa gorabehera, aurrekarietan adierazi den bezala, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak batzorde honi jakinarazi dio eskatutako

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO**. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de Transparencia del Territorio Histórico de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la comisión será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("*Decreto Foral 128/2016*"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*

**SEGUNDO**. De acuerdo con los antecedentes que hemos recogido, la Sra. formuló reclamación ante esta comisión al no habérsele facilitado la información solicitada en el plazo normativamente previsto al efecto.

**TERCERO**. No obstante lo anterior, tal y como se ha indicado en los antecedentes de hecho anteriores, la Dirección General para la Promoción de la Autonomía Personal ha

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 90IS-FZWR-WOOJ-SUVB
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

informazioa bidali duela, nahiz eta hori erreklamatzaileak batzorde honen aurrean erreklamazioa jarri ondoren egin den.

LAUGARRENA. Adierazitakoa ikusita, ondorioztatu behar da bete dela orain erreklamazioa egiten duenaren uzia, eskatutako informazioa jakinarazi zaiolako.

Hala ere, adierazi behar da jakinarazpen hori indarrean dagoen araudian ezarritako ebazteko gehieneko epea igaro ondoren egin zela.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, erreklamazioaren xedea gerora galdu dela deklaratu behar da. Hala ere, Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari eskatzen zaio informazio publikoa eskuratzeko hurrengo eskaeretan kontuan har ditzala txosten honetan jasotako oharrak.

## EBAZPENA

Lehenengoa. Deklaratzea andreak sustatutako erreklamazioaren xedea gerora galdu dela, hark informazio publikoa eskuratzeko eskaeratik ondorioztatzen den uzia bete egin delako.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea erreklamatzaileari eta Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonala sustatzeko Zuzendaritza Nagusiari. Halaber, Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari ere jakinaraziko zaio.

Hirugarrena.- Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI HILABETEko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik

informado a esta comisión de la remisión de la información solicitada, si bien lo ha hecho con posterioridad a que se formulara reclamación ante esta comisión.

CUARTO. A la vista de lo señalador se debe concluir que la pretensión de la ahora reclamante ha sido satisfecha, al habérsele comunicado la información solicitada.

Sin embargo, debe señalarse que dicha comunicación se realizó una vez transcurrido el plazo máximo de resolución establecido en la normativa vigente.

Tomando en consideración todo lo señalado, procede declarar la pérdida sobrevenida del objeto de la reclamación, si bien se insta a la Dirección General para la Promoción de la Autonomía Personal a que, en futuras solicitudes de acceso a información pública, atienda a las observaciones que se contienen en el cuerpo del presente informe.

## RESOLUCIÓN

Primero. Declarar la pérdida sobrevenida del objeto de la reclamación promovida por DOÑA al haber sido satisfecha la pretensión deducida en su solicitud de acceso a información pública.

Segundo. Notificar esta resolución a la reclamante y a la Dirección General para la Promoción de la Autonomía Personal del Departamento de Acción Social. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa.

Tercero. - La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 90IS-FZWR-WOOJ-SUVB
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

aurrera.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik.

su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 90IS-FZWR-WOOJ-SUVB
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Sin./Fdo.: AMAIA ZURBANO-BEASKOETXEA LARAUDOGOITIA 2023-05-23
BATZARKIDEA
VOCAL

Sin./Fdo.: IÑIGO ALVEAR LECUE 2023-05-23
IDAZKARIA
SECRETARIO